

# Araba

## *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*

*Eusko Jaurlaritza*




## **AURKIBIDEA:**

<b>1. Hizkuntza gaitasuna.....</b>	<b>2</b>
<b>2. Hizkuntzaren transmisioa.....</b>	<b>9</b>
<b>3. Erabilera.....</b>	<b>16</b>
<b>4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.....</b>	<b>22</b>

# 1. HIZKUNTZA GAITASUNA

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016n Araban bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 19,2 euskalduna da, % 18,4 euskaldun hartzailea eta % 62,4 erdaldun elebakarra.


Hizkuntza-gaitasuna. Araba, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Gasteizen % 17,9 dira euskaldunak, % 18,4 euskaldun hartzaileak eta % 63,8 erdaldun elebakarrak

### Hizkuntza-gaitasuna. Gasteiz, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


### Hizkuntza-gaitasuna. Araba eta Gasteiz. 2016

	Araba	Gasteiz
<b>Guztira</b>	<b>273.100</b>	<b>206.300</b>
Euskaldunak	52.500	36.900
Euskaldun hartzaileak	50.200	37.900
Erdaldun elebakarrak	170.400	131.500

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken 25 urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun 1991n baino 37.000 euskaldun gehiago daude Araban. 12,2 puntuko hazkundea izan dute euskaldunek ehunekoetan (% 7 versus % 19,2).

## Euskaldunen bilakaera. Araba, 1991-2016



*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

Euskaldun hartzailleek ere hazkunde handia izan dute 25 urte hauetan, ia 11 puntuko hazkundera hain zuzen (% 7,5 versus % 18,4).


Erdaldun elebakarrek, aldiz, 21,6 puntuko jaitsiera izan dute (% 85,4 ziren 1991n eta % 63,8 dira 2016an).

Erdaldun elebakarren beherakada eta euskaldunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, euskal gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.

Arabako euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan. Hala ere, euskaldunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Gertakari hori, gainera, ez da berria, halaxe gertatu izan baita azken 25 urteotan, baina agerikoagoa da gazteen artean. Horrela, 16 eta 24 urte bitartekoen % 60,1 euskaldunak dira gaur egun; 1991n, aldiz, % 8,9 ziren.

Araban adinaren arabera bilakaerari dagokionez, orain dela 25 urte aurreikusten zen joera areagotu egin da. Hau da, gazteenen euskalduntzea agerikoa da eta erdaldun elebkarren ehunekoaren jaitsiera orokorra. 16-24 urte bitartekoen artean hamarretik sei euskaldunak dira (% 60,1).

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera.  
Araba. 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hortaz, euskaldunen hazkundea gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak aurrera egin ahala, multzo hori euskaldunak irabazten ari da azpitik eta erdaldun elebkarrek galtzen goitik. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, nagusien multzoan haziz doa erdaldun elebkarren ehunekoa.

## Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko

Araban 16 urte edo gehiagoko euskaldunen % 6,7k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz baino, hau da, euskal elebidunak dira. Euskal elebidunen ehunekorik handiena 50 urtetik gorakoek dute (% 10 inguru), eta txikiena 35 urtetik beherakoek (% 6 baino gutxiago).

Euskaldunak erraztasunaren arabera. Araba, 2016 (%)




*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

Elebidun orekatuak, aldiz, erraztasun bera du euskaraz zein erdaraz egiteko eta euskaldunen % 22,6 dira. Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 35-49 urte bitartekoen artean dago (% 28,3).

Azkenik, erdal elebidunak erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz baino, eta % 70,8 dira. Euskaldunen multzorik handiena da adin-talde guztietan. Erdal elebidunen ehunekorik handiena 16-24 urte bitartekoek eta 65 urte edo gehiagokoek dute (% 75,1 eta % 74,7 hurrenez hurren).


Euskaldunak erraztasunaren arabera. Gasteiz, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Gasteizen 16 urte edo gehiagoko euskaldunen % 5,4 dira euskal elebidunak. Elebidun orekatuak hamarretik bi pasatxo dira (% 23,4). Azkenik, hamarretik zazpi baino gehiago erdal elebidunak dira (% 71,2).

Euskaldunen erraztasuna, adinaren arabera. Araba, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016



Arabako euskaldunen erraztasuna ez da askorik aldatu 1991tik hona. Duela 25 urte euskal elebidunen ehunekoa (% 5,9 versus % 6,7) eta elebidun orekatuen ehunekoa zerbait txikiagoa zen (% 20,3 versus % 22,6) eta erdal elebidunen ehunekoa, ostera, handiagoa (% 73,7 versus % 70,8).

Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Araba, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


## 2. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

### Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Arabako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 3,8k euskara soilik jaso du etxean eta % 3,2k euskara eta erdara jaso ditu etxean % 93k erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza arabiera, errumaniera, portugesa eta abar direla.

Lehen hizkuntza. Araba, 2016 (%)



*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

Gasteizko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 3,2k euskara soilik jaso du etxean eta % 2,7k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Azkenik, % 94,1ek erdara soilik jaso du etxean

### Lehen hizkuntza. Araba eta Gasteiz, 2016 (%)

	<b>Araba</b>	<b>Gasteiz</b>
Guztira	<b>273.100</b>	<b>206.300</b>
Euskara	3,8	3,2
Euskara eta erdara	3,2	2,7
Erdara	93,0	94,1

*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*


Duela 25 urte Arabako biztanleriaren ehuneko berak jaso zuen euskara soilik etxean gaur egun baino (% 3,8). Etxean euskara eta gaztelania batera, aldiz, ehuneko txikiagoak jaso zuen gaur egun baino (1991n % 0,7 eta 2016an % 3,2). Azkenik, erdara soilik jaso zutenen ehunekoa handiagoa zen (1991n % 95,4 eta 2016an % 93).

Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira Arabako eta Gasteizko adin-talde guztietan, baina bada alderik batetik bestera.

Gaur egun, 16-24 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik altuena (% 7,8). Duela 25 urte ere lehen hizkuntza gisa, euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena 16-24 urte bitartekoek eta 65 urtetik gorakoen zuten (% 5,9 eta % 5,8 hurrenez hurren).

Euskara eta erdara jaso zutenen ehunekoari dagokionez, gazteenen artean dago alderik handiena. Izan ere, duela 25 urte, 16-24 urte bitarteko gazteen % 0,6k jaso zuen euskara eta erdara batera lehen hizkuntza gisa; gaur egun, ordea, adin horretako gazteen % 9,5ek jaso du, hau da, ia 9 puntuko aldea.

Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera.  
Araba. 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

## Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Arabako 16 urte edo gehiagoko euskaldunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko da orain.


Euskaldunen % 17,4k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira. Euskaldunen % 11,6k, ordea, euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta jatorrizko elebidunak dira. Azkenik, % 71k erdara jaso du etxean eta euskaldun berriak dira. Azken hauek etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian. Azpimarratzekoa da euskaldunen artean multzo horrek duen nagusitasuna.

Gasteizen euskaldunen % 16,5 euskaldun zaharrak dira, % 10,9 jatorrizko elebidunak eta % 72,6 euskaldun berriak.

Euskaldunen multzoa asko aldatu da Araban azken 25 urteotan. 1991n euskaldun gehienak euskaldun zaharrak ziren (% 51,9), hau da, euskara etxean soilik jaso zuten, nahiz eta euskaldun berriak ere hamarretik lau baino gehiago

izan (% 42,8). 2016an, aldiz, euskaldun berriak dira nagusi (% 71). Era berean, jatorrizko elebidunek pisu handiagoa hartu dute (% 5,4 ziren 1991n eta % 11,6 dira 2016an. Azkenik, euskaldun zaharren ehunekoa asko jaitsi da (% 51,9 ziren 1991n eta % 17,4 dira 2016an).


Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera.  
Araba, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Adin-talde guztietan euskaldun berriak dira nagusi 65 urte edo gehiagokoen artean izan ezik. Euskaldun berrien ehunekorik handiena 25-34 urte bitartekoek dute (% 77,7). Euskaldun zaharren ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 64) eta jatorrizko elebidunen ehunekorik handiena, ostera, 16-24 urte bitartekoek (% 15,7).

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera  
Araba, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

### Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Gurasoak biak euskaldunak izanik, seme-alaben % 67,1ek euskara soilik jaso du etxean Araban, % 21,7ek euskara eta erdara eta % 11,2k ez du euskararik jaso.

Gurasoetako bat baino ez izanik euskalduna, % 74,8k erdara soilik transmititu du eta % 25,2k euskara eta gaztelania.


Aipatzekoa da guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa dela adinean behera egin ahala. Horrela, euskararen transmisiorik

handiena 16-34 urte bitarteko inkestatuek dute. Adin horretako gazteen % 78,9k euskara soilik jaso du etxean eta % 17,6k euskara eta erdara.

Era berean, 35-50 urtera bitartean dituztenen artean, guraso biak euskaldunak izanik, % 64,7k euskara soilik jaso du eta % 12,4k euskara eta erdara.

Azkenik, 50 urte edo gehiago dituztenen artean euskararen transmisioa txikiagoa da: % 61,6k euskara soilik jaso dute eta % 28,4k euskara eta erdara.

Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera Araba, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 16-34 urte bitartekoen % 41,8k euskara eta erdara jaso ditu, 35-49 urte bitartekoen % 38,2k eta 50 urte edo gehiagokoen herenak % 9,3k.

Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean adinaren arabera. Araba, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016



### **3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-transmisioa**

3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei. Transmisio hori aztertzeko gurasoen hizkuntza-gaitasuna izan da kontuan.

#### **Guraso biak euskaldunak direnean**

Gurasoak biak euskaldunak direnean, seme-alaben % 51k euskara soilik jaso du etxean % 31k euskara eta erdara eta % 18k erdara.

#### **Gurasoetako bat denean euskalduna**


Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna % 54k euskara eta erdara transmititu ditu eta % 46k erdara.

### 3. EUSKARAREN ERABILERA

Araban, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 14,5ek euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a) % 5,6k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b) Aldi berean, % 8,9k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.


Euskararen erabileraren tipologia. Araba, 2016 (%)



*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

Gainerako guztiek (% 85,5) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken hauen artean badela multzo txiki bat (% 7,2) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.


## Euskararen erabileraren tipologia. Gasteiz, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Erabilerari buruzko emaitzetan ez dago alde handirik Arabaren eta Gasteizen artean. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 4,7 dira Gasteizen. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 7,8 dira.

## Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera Araba, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak 5,1 puntu egin du gora Araban (% 0,5 versus % 5,6).

Oro har euskarak erabilera-eremu guztietan egin du gora: etxean, eremu hurbilean eta eremu formalean. Azken 25 urteotan gorakadarik handiena eremu formalean gertatu da, bereziki lankideekin eta udal zerbitzuetan. 2016an, Arabako biztanleen % 11,6k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lankideekin eta % 10,7k udal zerbitzuetan (1991n, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak bi eremu horietan % 3,8 eta % 0,5 ziren, hurrenez hurren).


Eremu hurbil eta formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak Araba, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Eremu formaletik kanpo, aipatzekoa da etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 6 direla, 1991n baino 4,4 puntu gehiago. Etxeko kideen arteko erabilerari erreparatuz, honako hau da erabilera bikotekideen artean % 3,9 (1991n % 1,4), seme-alabekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 8,5 dira (1991n % 2,9), neba-arrebekin % 6 (1991n % 2,3), aitarekin % 5 (1991n % 0,7) eta amarekin % 5,2 (1991n % 1). Igoerarik handiena seme-alabekin, aitarekin eta amarekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen artean gertatu da: 5,6 puntu seme-alabekin eta 4,3 eta 4,2 puntu aitarekin eta amarekin.

Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak  
Araba, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea gero eta handiagoa da adinean behera egin ahala. 2016an, 65 urtetik gorakoen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 1,1 dira (1991n % 0,3), 50 eta 64 urtekoen artean % 4,1 (1991n % 0,4), 35 eta 49 urtekoen artean % 5,7 (% 1,3 zen 1991n), 25 eta 34 urtekoen artean % 9,8 (1991n % 0) eta 16 eta 24 urtekoen artean % 14,9 (1991n % 0,2).

Beti erdara erabiltzen dutenek nagusi izaten jarraitzen dute adin-talde guztietan.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Araba. 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Beraz, orain arteko emaitzak kontuan hartuta, esan daiteke Araban gero eta pertsona gehiagok erabiltzen duela euskara eta gero eta gutxiago direla erdara hutsean aritzen direnak. Hau da, ahozko euskararen presentzia gero eta handiagoa da bai familiaren esparruan, bai eremu hurbiletan, baita eremu formaletan ere.

## **4. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA**

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritzia araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.


Inkesta Soziolinguistiko honen arabera, Arabako 16 urtetik gorako biztanleen % 53,4 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 32,7 ez alde ez aurka eta % 13,9 aurka.

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen % 79,5, euskaldun hartzaileen % 60,2 eta erdaldun elebakarren % 43,4.

Gasteizko biztanleriaren % 50,6 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 35 ez alde ez aurka eta % 14,3 aurka.

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehuneko handiena dutenak 16-24 urte bitartekoak dira (% 65), eta 50-64 urte bitartekoak, aldiz, ehuneko txikiena dutenak (% 46,2).

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera.  
Araba, 1991-2016 (%)



*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

Euskara sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken 25 urteotan. Izan ere, 1991n % 45,4 zegoen euskara sustatzearen alde, % 33,4 ez alde ez aurka eta % 21,1 aurka zegoen.

Hortaz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 9 puntuko igoera izan du (% 45,4 versus % 53,4). Horrezaz gain, ez dago alde handirik ez alde ez aurka agertzen direnen artean (% 33,4 versus % 32,7); bai, ordea, aurka daudenen artean, 7,2 puntuko jaitsiera hain zuzen (% 21,1 versus % 13,9).